

EUSKO JAURLARITZAK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK ELKARREKIN EZARRIKO DUTE EUSKARAREN ERAKUSMAHAIA

Gaur irekiko da Expolangues azoka

■ Ingelesa ikasteko estatu gisa, Australiaren ekarpena ohoratuko dute hizkuntzen eta kulturen Parisko azokan

■ Eremu urriko hizkuntzen erakusmahaiak toki handia beteko dute Expolangues saloian, aurreko aldietan bezala

■ REED-OIP erakundeak hemezortzigarren aldikotz antolatu du munduko hizkuntzen erakustazoka

Eneko Bidegain / Baiona

EXPOLANGUES saloia gaur goizean irekiko ditu ateak Parisen. 300 erakundetik gora eta ia 30.000 bisitari espero dituzte antolatzaileek. Aurten Australia ohoratuko dute, ingelesaren ikasteko estatu gisa. Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikarako sailek erakusmahai bakar bat aurkeztuko dute, ohi bezala. Hizkuntza gutxituek toki handia beteko dute aurtengoa ere.

REED-OIP elkarteak Expolangues Hizkuntzen eta Kulturen saloia antolatuko du Parisen, hemezortzigarren aldikotz. Ehundaka erakundek erakusmahaiak aurkeztuko dituzte gaurtik igandera bitartean. Orotara 300 erakunde baino gehiago espero dituzte antolatzaileek. Iazko 27.589 bisitarien gaitzeta ere aurrikusten dute.

Euskaldunek ere presentzia ohargarria izango dute, Expolangues-ko prentsa arduradunek EGUNKARIARI segurtatu diotenez. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elgarrekin antolatuko dute aurtengoa ere erakusmahaiak, Jaurlaritzako iturriek baieztatu dutenez.

Kultura saileko hizkuntza politikarako sailordetzak atara berria duen materiala erakutsiko du: Bidegileak, Euskara biziberritzeko plan nagusia, *Euskara arlo sozioekonomikoan* argitalpena eta abar. CD-ROMak, hiztegiak, euskaratik bertze hizkuntzera itzuli literatura lanak eta bertze material ugari ere agertuko dira Parisera. Euskarazko webguneak ere erabili ahaliko dira.

Josune Ariztondo hizkuntza politikarako sailburuordea eta Xabier Aizpurua koordinazio eta euskara sustapenerako zuzendaria bertan egon dira.

Australia ohoratuko dute aurtengo edizioan. «Australia herri modernoa da eta ospe handiko instituzioz eta maila handiko eskola profesionalez hornitua. Ikasleek ingeles



Expolangues azokaren hamabosgarren aldian irudi bat, 1997. urtean Parisen.

ikasketak bertze aktibitate anitzekin konbina ditzakete, hala nola urpekaritza, astrofisika eta hegazkin gidatzea-

rekin» azaldu dute Saloiaren antolatzaileek.

Ingelesa ikasi nahi duten ikasle europar (frantsesek

batez ere) gero eta gehiagok hautatzen dute Australiara joatea. Bi hilabeteko egonaldia Ingalaterran edo Estatu

Batuetan baino merkeago kostatzen dira maiz, Reed-OIPren arabera.

Australia izango da protagonista

Australiak eta Frantziak bi estatuen arteko unibertsitate kooperazio akordioa izenpetu zuten joan zen urriaren 11n Parisen. Akordio hori ohoratuko dute aurtengo edizioan. Australiako erakusmahaiak unibertsitateak, goi mailako eskolak, hizkuntza kolegio eta lizeoak, argitaletxeak eta multimedia zentroak errezebituko ditu. Bertze hizkuntzetako ordezkariak ere material andana ekarriko dute.

egitaraua

Hizkuntzekin dantzan

■ Eztabaida eta animazio ugari antolatu dute hizkuntzen inguruan. Hizkuntza klaseek eta Internet guneek toki berezia beteko dute. "Bidaia karneta" da aurtengo berrikuntza.

Enpresak eta hizkuntzak • Bi hizkuntza edo gehiagoren jakiteak lanaren munduan sartzeko ekartzen dituen abantailak esplikatuko dituzte osteguneko solasaldian. Aldi berean, enpresek gutxi inbertitzen dute hizkuntzen garapenari buruz.

Hizkuntza testak • Bakoitzak ingeles, aleman, italiar, espainol edo frantses hizkuntzetan zer maila duen ezagutu ahal izango du, doako test batzuen bidez.

Ikastaldiak • Bretoia, suediera, arabiera, hungariera, esperantoa eta bertze hainbat eta hainbat hizkuntza gutxi he-

datuei buruzko lehen ikastaldiak dohai-nik emanen dituzte.

Hizkuntza gutxituak • Britainiako erakusmahaiak «eskualde hizkuntzei» buruzko eztabaida bat antolatu dute. Greziako erakusmahaiak «gutxiengo hizkuntzak» jorratuko dituzte.

Bidaia karneta • Bakoitzak bere herriari buruzko hainbat gauza erakutsiko du: argazkiak, egoitza tradizionalak, olerkia, dantza, musika eta abar. Hizkuntza bat ezin dela herriaren kultura ezagutu gabe ikasi azpimarratu nahi du «Bidaia karneta» sailak.

Internet guneak • Hizkuntzen ikasteko teknologia berrien ezagutzeko cybergune bat antolatuko dute, Interneti lotuak diren zortzi ordenagailurekin. Hizkuntzei lotuak diren webgune guztiak aurkitzen ahaliko dira.

TEZ EU\$K
ZE ITZU , K . E.
1. k m r x r n t n d z k r z
K n l s l u k n i s k r k r n n
r z , K r r r h n k l r n n
k u l t u r r t z , L u z r r k
k l z n k r n z s u r .
E k n r n z k / s L r n 7 . 3
d k u l n r r u l k t r
k u l z h r
r r r r K n t s l a r n l z r .